



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEGEBILTZARREKO MAHAIAIARI

Eva Blanco de Angulok, Euskal Herria BILDU Taldearen bozeramaile-ordeak, **Adikzioaren Legearen proiektuari** (10/09/01/00/0010) hurrengo ZUZENKETA hauek aurkeztu dizkio. Horretarako, indarrean dagoen Erreglamenduaz baliatu da.

1. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	IZENBURUA
<i>Jatorrizko testua</i>	Adikzioen legea.
<i>Testu Berria</i>	Adikzio eta drogen legea
<i>Zioa</i>	Gure ustez, izenburua errealitatera egokitu behar da, droga ezberdinak kontsumitzen dituzten pertsona guztiek ez baitute menpekotasunen bat sortzen.

2. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	13. artikulua. Adikzioen prebentzioa
<i>Jatorrizko testua</i>	6. Prebentziozko jardueretan, lehentasuna izango dute familia-komunitate-eta hezkuntza eremuek. Elkarrekin aritu beharko dute lanean, bai eta gizarte-eragileekin ere, aplikatu beharreko neurriak benetan eraginkorrak izan daitezen.
<i>Testu Berria</i>	6. Prebentziozko jardueretan, lehentasuna izango dute familia-, lana-, komunitate-, eta hezkuntza eremuek. Elkarrekin aritu beharko dute lanean, bai eta gizarte-eragileekin ere, aplikatu beharreko neurriak benetan eraginkorrak izan daitezen.
<i>Zioa</i>	Arlo honetan, enpresarena eremu baliogarria izan daiteke prebentziozko jardueretan lantzeko.

3. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	15. artikulua. Prebentzioa familiaren esparruan
<i>Jatorrizko testua</i>	3. Administrazio publikoek lankidetzeta eta koordinaziorako bide eraginkorrak eratuko dituzte, eskumenak dituzten erakunde publiko guztiak, gurasoen elkarteak eta jarduera-eremu honetan diharduten entitate pribatu guztiak aintzat hartuta.
<i>Testu Berria</i>	3. Administrazio publikoek lankidetzeta eta koordinaziorako bide eraginkorrak eratuko dituzte, eskumenak dituzten erakunde publiko guztiak, gurasoen elkarteak eta jarduera-eremu honetan diharduten entitate pribatu nahiz irabazi-asmorik gabeko entitate guztiak aintzat hartuta.
<i>Zioa</i>	Uste dugu esparru honetan irabazi-asmorik gabeko entitate ezberdinen lana kontuan hartzekoa dela, eta horregatik, pribatuak izan arren, nabarmendu behar direla.

4. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	15. artikulua. Prebentzioa familiaren esparruan
<i>Jatorrizko testua</i>	4. b.2) Gurasoak edo erreferentziatzko beste heldu batzuk teknologien arloan gaitzeko edo alfabetatzeko ekimenak bultzatzea, teknologia digitalen eta horien aplikazio berrienen erabilera arduratsua, orekatua eta segurua sustatu dezaten.
<i>Testu Berria</i>	4. b.2) Gurasoak, tutoreak edo erreferentziatzko beste heldu batzuk teknologien arloan gaitzeko edo alfabetatzeko ekimenak bultzatzea, teknologia digitalen eta horien aplikazio berrienen erabilera arduratsua, orekatua eta segurua sustatu dezaten.
<i>Zioa</i>	Familia eredu tradizionalaren erreferentzia egiten dio, eta hori gaitzitzea egoki ikusten dugu.

5. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	15. artikulua. Prebentzioa familiaren esparruan
<i>Jatorrizko testua</i>	4.c) Gurasoak beren seme-alaben heziketan inplikatzeko baldintzak hobetzeko jarduerak egitea eta familiako bizitza eta lanbidea bateratzen laguntzea.
<i>Testu Berria</i>	4.c) Gurasoak eta tutoreak beren seme-alaben heziketan inplikatzeko baldintzak hobetzeko jarduerak egitea eta familiako bizitza eta lanbidea bateratzen laguntzea.
<i>Zioa</i>	Familia eredu tradizionalaren erreferentzia egiten dio, eta hori gainditzea egoki ikusten dugu.

6. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	15. artikulua. Prebentzioa familiaren esparruan
<i>Jatorrizko testua</i>	4.d) Gurasoei zuzendutako prebentziozko esku-hartzeak hobetzeko jarduerak, hezkuntza-eredu berriak garatuta.
<i>Testu berria</i>	4. d) Gurasoei eta tutorei zuzendutako prebentziozko esku-hartzeak hobetzeko jarduerak, hezkuntza-eredu berriak garatuta.
<i>Zioa</i>	Familia eredu tradizionalaren erreferentzia egiten dio, eta hori gainditzea egoki ikusten dugu.

7. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	15. artikulua. Prebentzioa familiaren esparruan
<i>Jatorrizko testua</i>	4. e.3) Familia-hezkuntza, gurasoei edo erreferentziatzko beste heldu batzuei berariazko gaitasun eta trebetasunak emateko, honetarako:
<i>Testu Berria</i>	4. e.3) Familia-hezkuntza, gurasoei, tutorei edo erreferentziatzko beste heldu batzuei berariazko gaitasun eta trebetasunak emateko, honetarako:
<i>Zioa</i>	Familia eredu tradizionalaren erreferentzia egiten dio, eta hori gainditzea egoki ikusten dugu.

8. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikularia</i>	16. artikulua. Prebentzioa esparru komunitarioan
<i>Jatorrizko testua</i>	2. Komunitatearen esparruko prebentzioa batez ere udalek eta mankomunitateek egingo dute, pertsona eta komunitateari eskaintzen dizkieten zerbitzuen hurbiltasuna dela eta.
<i>Testu berria</i>	2. Komunitatearen esparruko prebentzioa batez ere udalek eta mankomunitateek ahal duten neurrian egingo dute, pertsona eta komunitateari eskaintzen dizkieten zerbitzuen hurbiltasuna dela eta.
<i>Zioa</i>	Udal edo mankomunitate bakoitzak giza-baliabide eta baliabide ekonomiko ezberdinak dituelako.

9. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikularia</i>	16. artikulua. Prebentzioa esparru komunitarioan
<i>Jatorrizko testua</i>	3. a) Komunitateko administrazio publikoen, elkarten eta gizarte-erakundeen parte hartzea eta benetako inplikazioa sustatuko dute.
<i>Testu berria</i>	3. a) Komunitateko administrazio publikoen, elkarten eta gizarte-erakundeen parte hartzea eta benetako inplikazioa sustatuko dute, beti ere, inplikaturako aldean arteko lana bikoiztea saiheztuz.
<i>Zioa</i>	Gure aburuz, gizarte-erakundeetan egiten den lana bikoizten da.

10. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulusa</i>	16. artikulua. Prebentzioa esparru komunitarioan
<i>Jatorrizko testua</i>	3. b) Erraztasunak emango dituzte osasun- eta gizarte-zerbitzuek, gurasoen elkarteek eta beste gizarte-entitate batzuek era koordinatuan jardun dezaten, hezkuntzatxebetasunak sustatzeko, gurasoen gaitasunak areagotzeko eta familiek eskola eta komunitateko jardueretan parte hartzeko.
<i>Testu berria</i>	3 b.) Erraztasunak emango dituzte osasun- eta gizarte-zerbitzuek, gurasoen elkarteek eta beste gizarte-entitate batzuek era koordinatuan jardun dezaten, hezkuntzatxebetasunak sustatzeko, gurasoen eta tutoreen gaitasunak areagotzeko eta familiek eskola eta komunitateko jardueretan parte hartzeko.
<i>Zioa</i>	Familia eredu tradizionalari erreferentzia egiten diolako

11. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulusa</i>	17. artikulua. Prebentzioa hezkuntzaren esparruan
<i>Jatorrizko testua</i>	2. 1. Adin guztietako ikasleak informatu eta sentsibilizatzea substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuei buruz, arlo hauetan: ausazko jokoak, teknologia digitalen erabilera (Internet, gizarte-sareak, bideojokoak, telefonia mugikorra) eta horien aplikazio berriak, elikadura, erosketak, sexualitatea, ariketa fisikoa eta gorputzeko estetikarekin erlazionatutako beste portaera batzuk.
<i>Testu berria</i>	2. 1. Adin guztietako ikasleak informatu eta sentsibilizatzea substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuei buruz, arlo hauetan: ausazko jokoak, teknologia digitalen erabilera (Internet, gizarte-sareak, bideojokoak, telefonia mugikorra) eta horien aplikazio berriak.
<i>Zioa</i>	Uste dugu ez daukala drogen eta adikzioen arloekin zerikusirik.

12. ZUZENKETA

GEHITZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	17. artikulua. Prebentzioa hezkuntzaren esparruan
<i>Testu berria</i>	2. c) Esparru horietan lan egiten ari diren giza-entitate ezberdinek garatzen dituzten ekintzak kordinatzeko zuzentzeko neurriak.
<i>Zioa</i>	Inplikaturako aldean artean gaizki-ulertzeak eta bikoiztasunak saihesten dira.

13. ZUZENKETA

GEHITZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	20. artikulua. Prebentziozko neurriak lan esparruan
<i>Testu berria</i>	b) 6. Pertsona kaltetuei euren tratamendu-saioretara joateko aukera erraztea, beti ere duten anonimato-eskubidea bermatuz.
<i>Zioa</i>	Langileen egoera babesten da.

14. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	24. artikulua. Prebentzioa justizia, espetxe eta segurtasun esparruetan
<i>Jatorrizko testua</i>	1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak aholkularitza eta lankidetzarako programak garatuko ditu, adikzioen arloan, epaitegi eta auzitegiekin, Ministerio Fiskalarekin eta polizia judizialarekin batera.
<i>Testu berria</i>	1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak aholkularitza eta lankidetzarako programak garatuko ditu, adikzioen arloan, epaitegi eta auzitegiekin, Ministerio Fiskalarekin, polizia judizialarekin eta giza-erakundeekin batera.
<i>Zioa</i>	Gure aburuz, gizarte-erakundeen lana eta gaitasunak kontuan hartu behar dira.

15. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	27. artikulua. Edari alkoholdunak sustatzea
<i>Jatorrizko testua</i>	1. Azoketan, erakusketetan edo antzeko jardueretan, 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunak sustatzen badira, gainerako guneetatik bereizitako tokietan egin beharko da eta adingabeak sartzea debekatuko da. Sarreran, debeku hori jasotzen duen kartela jarriko da.
<i>Testu berria</i>	1. Azoketan, erakusketetan edo antzeko jardueretan, 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunak sustatzen badira, gainerako guneetatik bereizitako tokietan egin beharko da eta adingabeak, helduekin lagunduta ez badaude, sartzea debekatuko da. Sarreran, debeku hori jasotzen duen kartela jarriko da.
<i>Zioa</i>	Gure ustez, ezin dira bereiztu edari alkoholdunak dituzten graduengandik.

16. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	28. artikulua. Edari alkoholdunen publizitatea egitea barruan eta kanpoan
<i>Jatorrizko testua</i>	1. Debekatuta egongo da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunen kanpoko publizitatea egitea. Kanpoko publizitatetzat hartuko da erabilera orokorrekoak diren guneetatik nahiz leku irekietatik pasatzen diren edo gune horietan dauden pertsonen arreta erakartzeko gai den publizitatea, irudiaren, soinuaren edo beste edozein bitarteko bidez. Ez dute debeku hori izango legez baimendutako produkzio- edo salmenta- guneetako seinale edo adierazleek; dena den, horiek ere 26. artikuluan aipatzen diren mugak izango dituzte.
<i>Testu berria</i>	1. Debekatuta egongo da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunen kanpoko publizitatea egitea. Kanpoko publizitatetzat hartuko da erabilera orokorrekoak diren guneetatik nahiz leku irekietatik pasatzen diren edo gune horietan dauden pertsonen arreta erakartzeko gai den publizitatea, irudiaren, soinuaren edo beste edozein bitarteko bidez. Horretaz gain, debekatuta egongo da edari alkoholdunen kanpo publizitatea egitea, agintari eskudunek hartara argitara ematen duten zerrendan jasotzen diren haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako zentroetako ateetatik lerro zuzenean 100 metro baino gutxiagora kokatuta dauden euskarrietan. Kokaleku horiek izango dira espresuki zerrenda horretan jasotzen dena, zeina eguneratua izango den aldian-aldian.

	Ez dute debeku hori izango legez baimendutako produkzio- edo salmenta-guneetako seinale edo adierazleek; dena den, horiek ere 26. artikuluan aipatzen diren mugak izango dituzte.
<i>Zioa</i>	Gure ustez, adingabeen zaintzeko neurriak ezarri behar dira.

17. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	30. artikulua. Edari alkoholduen beste publizitate-mota batzuk
<i>Jatorrizko testua</i>	3. Debekatuta egongo da kirol- edo kultura ekitaldietan eta haiek babestekoetan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholduen publizitatea egitea.
<i>Testu berria</i>	3. Debekatuta egongo da adingabeei zuzendutako kirol- edo kultura ekitaldietan, eta haiek babestekoetan edari alkoholduen publizitatea egitea.
<i>Zioa</i>	Gure ustez, adingabeen babesteko neurriak ezarri behar dira.

18. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	31. artikulua. Edari alkoholduen banaketa eta salmenta
<i>Jatorrizko testua</i>	4. Ondorengo lekuetan ezin izango da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholduen saldu, ez eta banatu ere: a) 18 urte baino gehiagoko ikasleentzako irakaskuntza-zentroetan. b) Administrazio publikoen egoitzetan. c) Geltokietan eta autobide eta autopistetako zerbitzugune eta ostalaritzako guneetan. d) Jolasguneetan (parke tematikoetan, esaterako) edota aisialdirako edo dibulgaziorako guneetan.
<i>Testu berria</i>	4. Ondorengo lekuetan, ezin izango da edari alkoholduen saldu, ez eta banatu ere, horretarako espresuki baimendutako tokietan izan ezik:

	<p>a) 18 urte baino gehiagoko ikasleentzako irakaskuntza-zentroetan.</p> <p>b) Administrazio publikoen egoitzetan.</p> <p>c) Geltokietan eta autobide eta autopistetako zerbitzugune eta ostalaritzako guneetan.</p> <p>d) Jolasguneetan (parke tematikoetan, esaterako) edota aisialdirako edo dibulgaziorako guneetan, adingabeei zuzenduta ez badaude</p>
<i>Zioa</i>	Gure ustez, adingabeen babesteko neurriak ezarri behar dira.

19. ZUZENKETA

EZABATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	33. artikulua. Edari alkoholdunen banaketa eta salmenta
<i>Jatorrizko testua</i>	3. Debebatua egongo da edari alkoholdunak kontsumitzea 31.3 artikulua debekatzen dituen lekuetan.
<i>Zioa</i>	Inplikaturako aldean artean gaizki-ulertzeak saihestu behar da

20. ZUZENKETA

GEHITZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	33. artikulua. Edari alkoholdunen kontsumoa
<i>Testu Berria</i>	4. Kontuan hartuko da gizonek eta emakumeek edari alkoholdunen kontsumoa eragile ezberdinak egoten direla, eta horren ondorioak ere aztertuko dira.
<i>Zioa</i>	Beharrezkotzat jotzen dugu generoaren arabera eraginen txostena kontuan hartzea. Emakumeengan, epe luzeko arrisku handiaren kontsumoaren prebalentzia igo da.

21. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulusa</i>	40. artikulua. Tabakoa kontsumitzea
<i>Jatorrizko testua</i>	1. Debekatuta egongo da erretzea erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan eta herritarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa zein pribatua izan. Gune erdi-itxiztat jotzen dira lokal itxi baten kanpoaldean kokatutako eremu guztiak, baldin eta haien teilatuek edo hormek azaleraren % 50 baino gehiago estaltzen badute eta eremuak etengabe aireztatuak ez badaude, kea era naturalean ezabatzen dela bermatzen duen kanpoko airearen bidez.
<i>Testu berria</i>	1. Debekatuta egongo da erretzea erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan eta herritarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa denean. Gune erdi-itxiztat jotzen dira lokal itxi baten kanpoaldean kokatutako eremu guztiak, baldin eta haien teilatuek edo hormek azaleraren % 50 baino gehiago estaltzen badute eta eremuak etengabe aireztatuak ez badaude, kea era naturalean ezabatzen dela bermatzen duen kanpoko airearen bidez.
<i>Zioa</i>	Gure ustez, leku pribatuen erabiltzaileek kudeatu behar dute.

22. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulusa</i>	40. artikulua. Tabakoa kontsumitzea
<i>Jatorrizko testua</i>	2.b) Administrazio publikoen eta zuzenbide publikoko erakundeen zentroetan eta bulegoetan.
<i>Testu berria</i>	2.b) Administrazio publikoen eta zuzenbide publikoko erakundeen zentroetan eta bulegoetan, aire zabaleko guneetan izan ezik.
<i>Zioa</i>	Idazkera koherenteagoa geratzen delako.

23. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	40. artikulua. Tabakoa kontsumitzea
<i>Jatorrizko testua</i>	2 i) Merkataritza-guneetan, azalera handiak eta galeriak barne.
<i>Testu berria</i>	2 i) Merkataritza-guneetan, azalera handiak eta galeriak barne, aire zabaleko guneetan izan ezik.
<i>Zioa</i>	Idazkera koherenteagoa geratzen delako.

24. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	40. artikulua. Tabakoa kontsumitzea
<i>Jatorrizko testua</i>	2 m) Gizarte-laguntzako centro, osatu eta bestelako establezimenduetan.
<i>Testu berria</i>	2 m) Gizarte-laguntzako centro, osatu eta bestelako establezimenduetan, aire zabaleko guneetan izan ezik.
<i>Zioa</i>	Idazkera koherenteagoa geratzen delako.

25. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	50. artikulua. Ausazko jokoaren eskaintzaren mugak
<i>Jatorrizko testua</i>	2.e) 2 Joko-eztablezimenduetan (kasino, bingo, joko-areto eta apustu lokaletan) sarrera debekatzea adingabeei, desgaitasun intelektuala duten pertsoneri, juridikoki ezgaitua daudenei eta jokoaren debekatua duten zerrendan ageri direneei, bai ordena, lasaitasuna eta jokoaren garapena eragozten dutenei

	ere.
<i>Testu berria</i>	2.e) 2 Joko-eztablezimenduetan (kasino, bingo, joko-areto, apustu eta loteria administrazio lokaletan) sarrera debekatzea adingabeei, desgaitasun intelektuala duten pertsoneri, juridikoki ezgaitua daudenei eta jokoak debekatua duten zerrendan ageri direneei, bai ordena, lasaitasuna eta jokoen garapena eragozten dutenei ere.
<i>Zioa</i>	Gure aburuz, zerrenda osatu behar da.

26. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	50. artikulua. Ausazko jokoen eskaintzaren mugak
<i>Jatorrizko testua</i>	2.b 3). Baimendutako joko-enpresek eta beren langileek jokalariei maileguak ez ematea bultzatzea.
<i>Testu berria</i>	2. b .3).Baimendutako joko-enpresek eta beren langileek jokalariei maileguak ez ematea bultzatzea, ezta ordainketa atzeratua onartzea.
<i>Zioa</i>	Arlo horretako adikzioaren eraginak apaldu behar dira.

27. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	54. artikulua. Zerbitzu sanitario eta soziosanitarioak
<i>Jatorrizko testua</i>	<p>Adikzioak dituzten pertsoneri zuzendutako zerbitzu eta ekipamenduak osasun-sareko baliabide hauetan daude sarturik: lehen mailako arreta, osasun mentala, ospitale-arreta, larrialdietako asistentzia, arreta soziosanitarioa, eta lehen eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen sarea.</p> <p>Hain zuzen ere, arlo soziosanitarioko ardura duten administrazioek, zerbitzu hauek izango dituztela bermatuko diete adikzioak dituzten pertsoneri eta haien familiei:</p>
<i>Testu berria</i>	<p>Adikzioak dituzten pertsoneri zuzendutako zerbitzu eta ekipamenduak osasun-sareko baliabide hauetan daude sarturik: lehen mailako arreta, osasun mentala, ospitale-arreta, larrialdietako asistentzia, arreta soziosanitarioa, eta lehen eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen sarea.</p> <p>Hain zuzen ere, arlo soziosanitarioko ardura duten administrazioek, 12/2008 legearen 46. artikuluaurren aurrikosten den soziosanitarioaren zorroaren garapenaren arabera, zerbitzu hauek izango dituztela bermatuko diete adikzioak dituzten pertsoneri eta haien</p>

	familiei:
<i>Zioa</i>	Gaur egun, 12/2008 Legea ez dago garatuta.

28. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	58. artikulua. Gizarte-zerbitzuen eremuan adikzioak dituzten edo izateko arriskuan dauden pertsonen arretan aplikagarri diren jarduera eremuak eta irizpideak.
<i>Jatorrizko testua</i>	2. Halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ekimenak susta ditzake bereziki, Gizarte Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa jarraituz, Gizarte zerbitzuen esparruko partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzutik adikzioen fenomenoaz gizartean dagoen ikuspegia pixkanaka aldatzeko, eta horrelako egoerak soilik norberaren erantzukizunaren mende uzten duten estereotipoak desagerrarazteko.
<i>Testu berria</i>	2. Halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak ekimenak sustatuko du bereziki, Gizarte Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa jarraituz, Gizarte zerbitzuen esparruko partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzutik adikzioen fenomenoaz gizartean dagoen ikuspegia pixkanaka aldatzeko, eta horrelako egoerak soilik norberaren erantzukizunaren mende uzten duten estereotipoak desagerrarazteko.
<i>Zioa</i>	Gure aburuz, ekimenak sustatzeko beharrak estigmatizazioak saihesten ditu.

29. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	61. artikulua. Prestakuntza
<i>Jatorrizko testua</i>	1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erabakiko dute zer programa garatu behar diren osasun arloko langileak, gizarte zerbitzuetakoak, hezitzaileak, Euskadiko poliziak, gizarteko beste bitartekari batzuk nahiz adikzioekin erlazionatutako zereginetan aritzen diren langileak prestatzeko. Horretarako, administrazioak berak dituen baliabideez gainera, prestakuntzako proiektuak burutzen dituzten gizarte-

	ekimeneko elkarteen edo bestelakoek laguntza izan dezake.
<i>Testu berria</i>	1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erabakiko dute zer programa garatu behar diren osasun arloko langileak, gizarte zerbitzuetakoak, hezitzaileak, Euskadiko poliziak, gizarteko beste bitartekari batzuk nahiz adikzioekin erlazionatutako zereginetan aritzen diren langileak prestatzeko. Horretarako, administrazioak berak dituen baliabideez gainera, prestakuntzako proiektuak burutzen dituzten gizarte-ekimeneko elkarteen edo bestelakoek laguntza kontuan hartuko du.
<i>Zioa</i>	Gizarte-ekimeneko elkarteei garrantzia nabarmendu behar zaie.

30. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	62. artikulua. Ikerketa
<i>Jatorrizko testua</i>	2.d) Komorbilitatearen fenomenoarekin eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako estupefaziante giza sailkatutako farmako berrien erabilerarekin erlazionatutako ikerketa klinikoko ildoak sustatuko ditu.
<i>Testu Berria</i>	2.d) Komorbilitatearen fenomenoarekin eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako estupefaziante giza sailkatutako farmako berrien erabilerarekin erlazionatutako ikerketa klinikoko ildoak sustatuko ditu. Horretaz gain, substantzia psikoaktibo berrien fenomenoaz aztertzea.
<i>Zioa</i>	Gaur egungo egoerara gehiago egokitzen daelako.

31. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	63. artikulua. Ebaluazioa
<i>Jatorrizko testua</i>	1. Eskumena duten administrazioek ebaluatuko dituzte adikzioen arloko prebentzio-, asistentzia-, gizarteratze-, prestakuntza- eta ikerketa arloetan dagokion adikzio-planaren esparruan garatutako programa publikoak.

<i>Testu berria</i>	1. Eskumena duten administrazioek, genero ikuspuntua kontuan hartuta, ebaluatuko dituzte adikzioen arloko prebentzio-, asistentzia-, gizarteratze-, prestakuntza- eta ikerketa arloetan dagokion adikzio-planaren esparruan garatutako programa publikoak.
<i>Zioa</i>	Emakumeen artean epe luzeko arrisku handiaren prebalentzia ezagutzeak garrantzia handia dauka.

32. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	68. artikulua. Udalen eskumenak
<i>Jatorrizko testua</i>	d) Lege honetan aurreikusitako kontrol neurriak betetzen diren ikuskatzea eta behatzea.
<i>Testu berria</i>	d) Udal batzoitzaren baliabideak kontuan hartuta, lege honetan aurreikusitako kontrol neurriak betetzen diren ikuskatzea eta behatzea.
<i>Zioa</i>	Udal guztiek ez daukate behar diren baliabiderik kontrol neurriak betetzeko.

33. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	68. artikulua. Udalen eskumenak
<i>Jatorrizko testua</i>	e) Ikuskatu eta zehatzeko ahala erabiltzea, Lege honetan ezarritakoari jarraikiz.
<i>Testu Berria</i>	e) Udal batzoitzaren baliabideak kontuan hartuta, ikuskatu eta zehatzeko ahala erabiltzea, Lege honetan ezarritakoari jarraikiz.
<i>Zioa</i>	Udal guztiek ez daukate behar diren baliabiderik ikuskatzeko neurriak betetzeko.

34. ZUZENKETA

GEHITZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	73. artikulua. Laguntza eta asistentzia organoa
<i>Testu Berria</i>	2.g 2). Alerta Goiztiarra Euskal sistema , sortu, bultzatu eta koordinatu
<i>Zioa</i>	Gaur egungo egoerara gehiago egokitzen da.

35. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	93. artikulua. Zehapenak ordeztea
<i>Jatorrizko testua</i>	Adingabeei ezarritako isunak ordeztu egin daitezke 88.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta isunen ordezkomunitatearen onurarako lan edo jarduerak eginarazi, eta arau-hausleari adikzioekin erlazionatutako prestakuntza- edo informazio-programak eginarazi.
<i>Testu berria</i>	Adingabeei ezarritako isunak ordeztu egin daitezke 88.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta isunen ordezk, arau-hausleari adikzioekin erlazionatutako prestakuntza- edo informazio-programak eginarazi.
<i>Zioa</i>	Uste dugu prestakuntza edo informazio programekin nahikoa dela.

36. ZUZENKETA

MOLDATZE ZUZENKETA

<i>Artikulua</i>	95. artikulua. Ikuskatzeko eta zehatzeko eskumena
<i>Jatorrizko testua</i>	2. Zehatzeko ahalmena honako organo hauek izango dute: a) Alkateek:
<i>Testu berria</i>	2. Zehatzeko ahalmena honako organo hauek izango dute: a) Udal batzoitzairen baliabideak kontuan hartuta, Alkateek:
<i>Zioa</i>	Udal guztiek ez daukate behar diren baliabiderik kontrolneurri horiek aurrera eramateko.

37. ZUZENKETA**MOLDATZE ZUZENKETA**

<i>Artikulua</i>	Azken xedapenetako bigarrena
<i>Jatorrizko testua</i>	Baimena ematen zaio Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari lege hau erregelamendu bidez garatzeko.
<i>Testu berria</i>	Baimena ematen zaio Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari lege hau erregelamendu bidez garatzeko, aldez aurretik Legebiltzarrari eta Adikzioen Euskal Batzordeari komunikatzen badie, jarraitu beharreko prozedurak kontuan hartuta.
<i>Zioa</i>	Beharrezkoa den kontrola areagotzea beharrezkoa da.

Gasteizen, 2015eko urriaren 14an**Eva Blanco de Angulo****EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramale-ordea**

A LA MESA DEL PARLAMENTO

Eva Blanco de Angulo, portavoz suplente del grupo EH Bildu, presenta las siguientes ENMIENDAS al proyecto de ley sobre adicciones (10/09/01/00/0010). Lo que realiza al amparo del vigente Reglamento.

ENMIENDA 1

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

<i>Artículo</i>	TÍTULO
<i>Texto original</i>	Ley sobre adicciones
<i>Nuevo texto</i>	Ley sobre Adicciones y Drogas
<i>Justificación</i>	En nuestra opinión, es necesario adaptar el título a la realidad, y es que no todas las drogas consumidas por las personas consumidoras crean dependencia.

ENMIENDA 2

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

<i>Artículo</i>	Artículo 13.- Prevención de las adicciones
<i>Texto original</i>	6. Los ámbitos prioritarios de actuación preventiva serán el familiar, comunitario y educativo, que deberán coordinarse entre sí y con las y los agentes sociales, sobre todo comunitarios, para la efectiva eficacia de las medidas a aplicar.
<i>Nuevo texto</i>	6. Los ámbitos prioritarios de actuación preventiva serán el familiar, laboral, comunitario y educativo, que deberán coordinarse entre sí y con las y los agentes sociales, sobre todo comunitarios, para la efectiva eficacia de las medidas a aplicar.
<i>Justificación</i>	En este campo, la empresa puede ser un ámbito valioso para desarrollar actividades de prevención.

ENMIENDA 3

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

<i>Artículo</i>	Artículo 15. Prevención en el ámbito familiar
-----------------	---

<i>Texto original</i>	3. Las administraciones públicas procurarán el establecimiento efectivo de cauces de colaboración y coordinación eficientes entre todos los organismos públicos competentes, asociaciones de padres y madres, y entidades privadas que intervienen en este ámbito de actuación.
<i>Nuevo texto</i>	3. Las administraciones públicas procurarán el establecimiento efectivo de cauces de colaboración y coordinación eficientes entre todos los organismos públicos competentes, asociaciones de padres y madres, y entidades privadas y entidades sin ánimo de lucro que intervienen en este ámbito de actuación.
<i>Justificación</i>	Creemos que en este campo es necesario tener en cuenta el trabajo que desarrollan las diferentes entidades sin ánimo de lucro, y por eso, a pesar de ser privadas, creemos que es necesario señalarlas.

ENMIENDA 4

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

<i>Artículo</i>	Artículo 15. Prevención en el ámbito familiar
<i>Texto original</i>	4.b.2. Impulsar iniciativas orientadas a la capacitación o alfabetización tecnológica de padres y madres u otras personas adultas de referencia, con el fin de que puedan promover un uso responsable, equilibrado y seguro de las tecnologías digitales y de sus nuevas aplicaciones.
<i>Nuevo texto</i>	Impulsar iniciativas orientadas a la capacitación o alfabetización tecnológica de padres y madres, tutores o tutoras u otras personas adultas de referencia, con el fin de que puedan promover un uso responsable, equilibrado y seguro de las tecnologías digitales y de sus nuevas aplicaciones.
<i>Justificación</i>	Hace referencia al modelo tradicional de familia, y vemos que es adecuado superar ese modelo.

ENMIENDA 5

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

<i>Artículo</i>	Artículo 15. Prevención en el ámbito familiar
<i>Texto original</i>	4.c Actuaciones para mejorar las condiciones de implicación de padres y madres en la educación de hijas e hijos, y favorecer la conciliación de la vida profesional y familiar.
<i>Nuevo texto</i>	4.c Actuaciones para mejorar las condiciones de implicación de padres y madres y tutores y tutoras en la educación de hijas e hijos, y favorecer la conciliación de la vida profesional y familiar.
<i>Justificación</i>	Hace referencia al modelo tradicional de familia, y vemos que es adecuado superar ese modelo.

ENMIENDA 6

ENMIENDA DE MODIFICACIÓN

<i>Artículo</i>	Artículo 15. Prevención en el ámbito familiar
